



## Deserrian bizi den herria

**H**unkiturik ikusi genituen azaro erdialdean Saharako lurraldeetatik zetozkigun berriak. Marokok eraso militarrekin erantzun zion autodeterminaziorako erreferendum esku-bidea bistartzeko saharar talde batek aurrera zeraman ekimen baketsuari. Gertaera hauen aurrean Euskal Herriko hamaika txokotatik heldu ziren Sahararen aldeko aldarriak. Azpimarratu beharrekoa da babes hau ez dela berria; azken lau hamarkadetan askotarikoak izan dira herri honen defentsan antolatutako jarduerak: elikagai, sendagai eta bestelako funtsezko materiala eroateko karabana solidarioak, diru-bilketarako kirol eta kultur ekintzak... 1976an Espainiako soldaduek Mendebaldeko Sahara uztearekin batera alboratu zen deskolonizazio prozesurako Espainiak zuen ardura ere. Ordutik 1991ra arte iraun zuen Maroko eta Fronte Polisarioaren arteko gerrak, eta orduan indartu zen Euskal Herriaren herri honekiko elkartasuna. Garai hartan hasi ziren Nikaraguako iraultza sandinistaren aldeko ekimenak ere. Hain desberdinak izan ziren bi prozesu hauen testuinguruan kokatzen da garapenerako euskal lankidetzaren sorrera. Herritik sortutako hainbat elkartasun mugimenduk, pixkanaka, maila desberdinetako erakunde publikoen babesa jaso zuen.

Geroztik, udaletan, foru aldundietan, Eusko Jaurlaritzan baita Nafarroako Gobernuan ere garapenerako lankide-

**Fiskalitate global baten faltan, garapenerako lankidetzaren mundu mailako birbanaketa tresna bakarrenetakoa dela esan daiteke**

tza politika eraiki da, hots, plangintza estrategikoak zehaztu dira lehenetsitako sektore eta zonalde geografikoak zehaztuz, garapenerako lankidetzaren legeak onartu dira, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia martxan jarri zen 2011n. Garapenerako euskal lankidetzaren sorreratik EAEn 17.000 proiektutik gora finantzatu dira administrazio nagusietatik. Denetarikoak izan dira proiektuen jomugak. 2019an esaterako, exekutututako proiektuen ia %46 Latinoamerikako lurraldeetan garatu ziren, eta ia %20 Afrikan. Xehetasunez ikus daitezke Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atarian 2014tik egundaino finantzatutako proiektuen ezaugarriak.

Aipagarria da gorabeheratsua izan dela lankidetzaren bilakaera. 2008ko krisi finantzarioaren eraginez, EAEn eta Nafarroan ez ezik, gainerako autonomia erkidegoetan ere itzeleko beherakada nozitu zuten politika honi eskaintzako funtsek, kasu batzuetan hutsean geldituzeraino. Kantitateaz gain, azken



**IRATI LABAIEN EGIGUREN**  
EHU-KO IRAKASLEA

hamarkada hauetan bere eraginkortasunaren mugez ere aritu da hainbat; izan ere, mundu mailako datuei erreparatu, bestelako fluxu finantzario eta ekonomikoek hegoaldeko lurraldeetan izan dezaketean eragina, askotan, garapenerako lankidetzaren fluxuena baino handiagoa izan baitaiteke. Are gehiago, etorkinek euren lurraldeetara bidalitako diru kopurua ere hainbatetan handiagoa izan da.

Hala ere, fluxu desberdinek izan dezaketean eragina zabala bezain konplexua da. Alde batetik, eta fiskalitate global baten faltan, garapenerako lankidetzaren mundu mailako birbanaketa tresna bakarrenetakoa dela esan daiteke. Eta bestetik, hegoaldeko hainbat herrialdeetara kanpotik iristen diren lankidetzaren fluxuak, lurraldeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) zati handia dira batzutan. Esaterako, Mundu Bankuko datuen arabera, Yemengo Errepublikan nazioartetik eratorritako laguntza fluxuek herrialdeko BPGaren %28 izan ziren 2018an, eta azken hamar urteotan Afrika Erdiko Errepublikan lankidetzaren fluxuek ekarri dutena berriz, batez beste BPGaren %20 izan da.

Lankidetzarik onena behar ez dena omen da. Baina nazioarteko erakundeetan eta zehazki Estatu espainiarren ez ikusiaren aurrean, 40 urtetan deserrian bizi izan den saharar herriarentzat bizirauteko iturri izan da herrien babesa. ●